## Ekonomia Feministari buruzko Estatuko VII. Kongresuan bildutako feministok honako hau adierazten dugu:

## Las feministas reunidas en el VII Congreso Estatal de Economía Feminista manifestamos que:

### Krisi bati baino, dimentsio anitzeko kolapso bati egin behar diogu aurre

2005ean Bilbon egin zen lehen Kongresutik, zibilizazio krisiaren hainbat dimentsio salatu ditugu; izan ere, ordutik hona, dimentsio horiek sakondu eta gainjarri egin dira eta areagotu egin dira 2007-2008ko finantza-eztandatik aurrera. Gaur egun, kolapso ekologiko, sozioekonomiko eta politikoaren ertzean gaude. Bitartean, botere korporatiboa birkonfiguratu eta hedatu egiten da zenbait prozesurekin, hala nola zainketen, ugalketa biologikoaren eta ondasun naturalen merkantilizazioa; megaproiektu estraktibisten ugaritzea; eta digitalizazioa esku pribatuetan. Dirua finantza-kapitalismo harrapari baten aurkako eztabaidaren epizentroan kokatzen da. Desberdintasunak sakontzen ari dira maila globalean eta lurralde bakoitzean. Gero eta prekarioagoak diren bizitzei egunero eustea ikusezin bihurtutako esparru ekonomikoei dagokie.

### Más que una crisis, enfrentamos un colapso multidimensional

Desde el primer Congreso celebrado en Bilbao en 2005, venimos denunciando diversas dimensiones de la crisis civilizatoria, que, de entonces hasta ahora, se han ido profundizando y superponiendo y que se agudizaron a partir del estallido financiero de 2007-2008. Hoy nos encontramos al borde del colapso ecológico, socioeconómico y político. Mientras, el poder corporativo se reconfigura y expande con procesos como la mercantilización de los cuidados, la reproducción biológica y los bienes naturales; la multiplicación de los megaproyectos extractivistas; y la digitalización en manos privadas. El dinero se sitúa en el epicentro de la disputa frente a un capitalismo financiero depredador. Las desigualdades se profundizan a nivel global y en cada territorio. El sostenimiento cotidiano de unas vidas cada vez más precarias recae en las esferas económicas invisibilizadas.

### Pandemiak aukera bat eta arrisku asko ireki ditu

Pandemia aukera bat da gure ekonomiaren oinarriak berrikusteko eta bestelako forma ekonomiko bidezkoak eraikitzeko. Salatzen dugu lanik funtsezkoenak gaur egun prekarioenak eta feminizatu eta arrazalizatuenak direla. Adierazten dugu emakumeok etxeetan ez dugula nahi eta ezin dugula izan sistema biozida baten ihes-balbula. Auzoetan eta herrietan, bizitza zaintzeko sare komunitarioak ehuntzen hasi gara. Baina pandemiarekin arriskuak ere baditugu: une hori esku pribatuetan baliabide kolektiboak injektatzeko erabiltzeko arriskua, besteekiko beldurraz eta mesfidantzaz betetzeko arriskua, eskuin ultrakontserbadoreak eta autoritarismoak indartzeko arriskua.

### La pandemia abre una oportunidad y muchos riesgos

La pandemia es una oportunidad para revisar las bases de nuestra economía y para construir otras formas económicas justas. Denunciamos que los trabajos más esenciales son hoy los más precarios y los más feminizados y racializados. Manifestamos que las mujeres en los hogares ni queremos ni podemos ser la válvula de escape de un sistema biocida. En barrios y pueblos, empezamos a tejer redes comunitarias para el cuidado de la vida. Pero con la pandemia también corremos riesgos: el riesgo de que el momento se use para una nueva inyección de recursos colectivos en manos privadas, el riesgo de llenarnos de miedo y desconfianza hacia las otras, el riesgo de fortalecer a las derechas ultraconservadoras y los autoritarismos.

## Trantsizio ekofeminista baten aldeko apustua egiten dugu

Dimentsio anitzeko kolapsoak halabeharrezkotzat aurkezten zaizkigun aldaketetara garamatza, baina eraldaketa horien zentzua eztabaida gaia da. Trantsizio ekosozial baten aldeko apustua egiten dugu, susperraldi baino eraldaketa gisa ulertua: gaur egun ditugun bizi prekarioetatik bizitzaren zerbitzura dagoen ekonomia berri batera igarotzea aldarrikatzen dugu; ekoizpen-eredua errotik eraldatzea kolapso ekologikoari erantzuteko. Erantzukizun publiko-komunitarioak behar ditugu zahartzeari erantzunak emateko eta modu partekatuan eta ihes egin gabe etxeko eta zaintzako langileen esplotazioari aurre egingo dioten herritarren zaintza-beharrei erantzuteko. Mobilizatzen diren funts publikoek gehiengo sozialentzat balio behar dute, eta ez dute etorkizunean murrizketarik ekarri behar.

## Apostamos por una transición ecofeminista

El colapso multidimensional nos aboca a cambios que se nos presentan como inevitables, pero el sentido de estas transformaciones está en disputa. Apostamos por una transición ecosocial leída en clave de transformación más que de recuperación: reivindicamos transitar de las vidas precarias que tenemos hoy a una nueva economía al servicio de la vida; transformar de raíz el modelo productivo para responder al colapso ecológico. Necesitamos responsabilidades público-comunitarias para articular respuestas al envejecimiento y abordar de manera compartida y sin evasiones las diferentes necesidades de cuidados de la población que combatan la explotación de las trabajadoras de hogar y cuidados. Los fondos públicos que se movilicen deben servir a las mayorías sociales y no suponer futuros nuevos recortes.

## Ekonomia feminista ezinbesteko jarduera emantzipatzaile internazionalista dela baieztatzen dugu

Feminista guztiek eta anitzek, akademiatik, aktibismotik, erakunde publikoetatik eta eguneroko bizitzatik, etorkizun hurbileko proposamen, narratiba eta horizonteak ehuntzen jarraituko dugu, engranaje kapitalista, heteropatriarkal, kolonialista, arrazista eta ekozidaren zutabeetako bakoitza errotik desegiten lagunduko dutenak. Elkarrekin eustearen aldeko apustua egiten dugu, sistemaren hedapenaren alternatiba anitzak ehuntzen dituzten talde-bilbeak erabiliz; hedapen hori, kanpotik inposatua ez ezik, gure eguneroko sentitzeko, egiteko eta bizitzeko moduetan ere ezartzen da. Horretarako, ikuspegi guztietatik ari gara lanean: zaintzak, elikadura-kateak, maila guztietako politika publikoak, ekonomia sozial eta solidario eraldatzailea eta esparru komunitarioa.

Kongresutik, elkar sostengatzen dugu eta Txilen, Kolonbian, Ekuadorren, Nikaraguan eta beste hainbat tokitan herri matxinadak egiten ari diren kide guztiak sostengatzen ditugu. Elkarrekin gizarte-egitura hain estua eraikiko dugu, ezen ez baitira sartuko ez balak eta ez murrizketak: sistema honen oinarriak astinduko dituen sare boteretsu bat!

## Afirmamos que la economía feminista es una práctica emancipadora internacionalista indispensable

Las feministas todas y diversas, desde la academia, el activismo, las instituciones públicas y la vida cotidiana, vamos a seguir tejiendo propuestas, narrativas y horizontes de futuro cercano que contribuyan a desmontar de raíz cada uno de los pilares del engranaje capitalista, heteropatriarcal, colonialista, racista y ecocida. Apostamos por resistir juntas desde tramas colectivas que entretejen alternativas múltiples a la expansión del sistema, una expansión que no solo se impone desde fuera, sino que se instala en nuestros modos de sentir, hacer y vivir cotidianos. Para ello, estamos trabajando desde todos los ángulos: los cuidados, las cadenas alimentarias, las políticas públicas a todos los niveles, la economía social y solidaria transformadora y lo comunitario.

Desde el congreso, nos acuerpamos y acuerpamos a todas las compañeras que están protagonizando las revueltas populares en Chile, Colombia, Ecuador, Nicaragua y tantos otros lugares. Juntas, vamos a construir un tejido social tan apretado que no entren ni las balas, ni los recortes: ¡una red poderosa que sacuda las bases de este sistema!

## Eraldaketa zehatzak eskatzen ditugu

- Ekonomia feminista sistematikoki sartzea Ekonomia Fakultateetako ikasketa-planetan.
- Telelana enplegua are gehiago prekarizatzeko erabiliko ez delako bermea, ez eta lan banaketa sexual eta arrazalizatu modu berriak sortzeko.
- Etxeko enpleguko eskubideak beste lan-sektore batzuekin erabat parekatzea, eta zaintzei buruzko eztabaida feminista irekitzea, zapalkuntzaren eta pribilegioaren ardatz gisa.
- Hainbat lurralde eskalatan zaintza sistema publiko-komunitarioak artikulatzea, autonomia eta horizontaltasun harremanak artikulatzea sustatzeko.
- Erreforma fiskal ausarta, progresiboa eta sakona abian jartzea, genero joerarik gabekoa, jendearen bizitzako premien zerbitzura dauden baliabide publikoak bermatuko dituena.
- Esparru komunitarioarekin loturak eraikiko dituzten eta erakundeekiko harremana demokratizatuko duten tokian tokiko politika publikoak ezartzea.
- Elikadura subiranotasunaren eta agroekofeminismoaren aldeko apustua, emakume nekazarien rola berreskuratuz eta baloratuz.
- Energia berdeetaranzko aldaketa, burujabetza energetikorantz egingo duena eta ez dena oinarrituko megaproiektu estraktibistetan.
- Kapitalismoaren ordezko logikekin funtzionatzen duten eta sistema sozioekonomikoaren eraldaketa sakona sustatzen duten ekonomia komunitario, solidario eta eraldatzaileak bultzatzea.
- Sare feminista internazionalistak eraikitzea kapitalismo globalizatua astintzeko, eta tokian tokiko erresistentzien arteko zubiak birsortu eta indartzea, lurraldeetako praktika zehatzetatik egunez egun elikatzen ditugunak.

Hauek ezinbesteko neurri batzuk dira. Dauden guztiak badira, baina ez daude, inola ere, diren guztiak. Esku artean dugun premiazko lan partekatua da: ekonomiaren oinarriak astintzea, guztion bizitza, benetan, erdigunean jartzeko.

Bilbo, 2021eko uztailaren 3a

## Exigimos transformaciones concretas

- La introducción sistemática de la economía feminista en los planes de estudios de las Facultades de Economía.
- La garantía de que el teletrabajo no se use para precarizar aún más el empleo y generar nuevas formas de división sexual y racializada del trabajo.
- La plena equiparación de derechos con otros sectores laborales para el empleo de hogar y la apertura de un debate feminista sobre los cuidados como eje de opresión y privilegio.
- La articulación de Sistemas Público-Comunitarios de Cuidados a diversas escalas territoriales, que promuevan la articulación de relaciones de autonomía y horizontalidad.
- La puesta en marcha de una reforma fiscal valiente, progresiva y profunda, sin sesgos de género, que garantice recursos públicos al servicio de las necesidades de la vida de la gente.
- La implementación de políticas públicas a nivel local que construyan nexos con lo comunitario y democraticen la relación con las instituciones.
- La apuesta por la soberanía alimentaria y el agroekofeminismo, recuperando y valorando el papel de las mujeres campesinas.
- Un cambio hacia energías verdes que avance hacia la soberanía energética y no se base en megaproyectos extractivistas.
- El impulso de las economías comunitarias, solidarias y transformadoras que funcionan con lógicas alternativas al capitalismo y promueven una transformación profunda del sistema socioeconómico.
- La construcción de redes feministas internacionalistas para sacudir el capitalismo globalizado, y recrear y potenciar puentes entre las resistencias locales que alimentamos día a día desde nuestras prácticas concretas en los territorios.

Estas son algunas medidas imprescindibles. Son todas las que están, pero ni mucho menos están todas las que son. Se trata de una labor compartida urgente entre manos: agitar las bases de la economía para poner, de verdad, la vida de todes en el centro.

Bilbao, 3 de julio de 2021